



Margarita Lotina

• PERTSONAIA •

«Euskaldun izan nahi dugu Kuban»

Margarita Lotina Habanan bizi da. Kubatarra da, arbaso euskaldunekoa. Neba zena Kubak eman duen futbolaririk handienetakoa du, Juan Lotina. Margarita bera behar gorrian diren euskaldunei laguntzeko elkarteko lehendakariordea da. Kubako euskaldunez aritzeko bide egin digu, bere bizitza abiapuntu harturik.



Nortasun agiria

Maria Margarita Lotina Martin (1935, Manzanillo, Kuba). Euskalduna zuen aita, Antonio Lotina, kanariarra ama. Aitaren aldeko aitaita-amamei dagokienez, Antonio Lotina zuen bata, epaile Lemoizen (Bizkaia); bestea, berriz, Margarita Anastasia Ibarra, herriko emagina. Aitaren euskaltasunak bezainbat, hamazazpi urte zituela Euskal Herrian egin zuen egonaldiak markatu du gure Margaritaren euskal sena. Idazkari izana da lanbidez, eta horretan lagundu du Habanako Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia izenekoan. Nebaren kirol ibilbidea ere hurretik segitzea gertatu zitzaion eta haren trebetasun handi eta zaletasun itsuaren lekuko dugu. Aita futbol zale, neba futbolari, iloba Heziketa Fisikoko irakasle eta Kubako futbolaren batzorde nazionalako kide... Lotina familiak atal berezia du euskaldunek Kuban egin duten historian.

tzela, pinaburuak batzera. Akordatzan naiz sagar lapurretan egiten nuela, sagarra asko gus-tatzen zitzaidan eta. Esaten zuten: “Bistan da Antonioren alaba dena!”. Nonbait, gure aitak, umetan, berdín egiten zuen, sagarrak harrapa-tu. Armintzan, Armitzekaldera joaten ginen.

Armitzekaldera?

Bai, han ondoko hondartzara. Hantxe bainatzen ginen. Lehengusu bat dut han, sasoi batean taberna zeukana. Erromeriak eta! Badut lehengusina bat Bilbon bizi dena; askotan joaten nintzen harekin Lemoiza. Gurdian igo eta perretxiko bila abantatzen ginen; oroi-tzapenak asko dira, benetan. Atera kontuak zenbat urte igaro diren harrezkero, baina zera esango dizut, ez nuke hil nahi, atzera hara joan gabe. Aitak Euskal Herriaz hitz egiten zigun, Lemoiz, Armintza, Bilbo... Baina hura ikusi, hura bizi eta gero... Niri ikaragarri gustatu zitzaidan, primeran baino hobeto pasatu nuen. Eta zenbat urte igaro diren, gero!

Bizi osoa.

Egia galanta! Asko gustatzen zitzaidan Artxan-dara joatea, eta Begoñako basilikara. Bazterrak ikustea gustatzen zitzaidan, eta irten egiten nintzen. Akordatzan naiz, behin, Bilboko Zazpi Kaleetan barrena ibili nintzen, bakarrik, eta galdu ere egin nintzen. Galdu, Zazpi Kaleetan! Bada, ez nuen etsi han ibiltzen ondo ikasi nuen arte. Arratsaldero, haraxe, ikasi arte! Areatzako antzokira joaten nintzen, han ikusi nituen Carmen Amaya, hantxe Fernando Fernan Gómezen konpainia... Sasoi hartan boladan zeuden artistak. Espainiako musika, dantza... odolean daramat.

Erromerietan ere ibili zinen. Han ez zen Espainia-ko musika ez dantzarik...

Euskal jota dantzatzan ikasi nuen. Erromerian dantza egina naiz ni.

Margarita Lotina, Habanan jaioa, euskalduna jatorriz.

Izatez, Maria Margarita Lotina Martin naiz. Aita, euskalduna, Lemoizen jaioa, Bizkaian. Hamabost urte zituela etorri zen hona, Kuba-ra, baina beti, zera hori sartu zigun barruan, ama lurrarentzako nahitasuna. 1952an Espai-niara joan nintzen eta ia bi urte egin nituen Bizkaian. Hamazazpi urte nituen ordurako. Hainbat denbora egin nuen Bilbon, izeko bat han bizi dut eta. Aitaita-amamak Lemoizen bizi ziren, eta gaur egun lehengusu-lehengusi-nak ditut Armintzan...

Zer oroitzapen duzu gaztetako egonaldi hartaz?

Akordatzan naiz izeko batekin –gure aitaren arreba nagusiarekin– Jata mendira joaten nin-

● Margarita Lotina

Neska-laguntzea eta?

Kubatarraz maiteminduta zeuden asko.

“Kubatarra” zinen zu...

Bai, halaxe esaten zidaten, “*la cubana*” (kubatarra). Niri asko gustatzen zitzaidan dantza egitea. Garai hartarako, hemen mamboa hasita zegoen, eta nebak eta biok oso ondo dantzatzeko genuen; mamboa, esan nahi dut. Behin, Bilbon, dantzalekura joan eta halako batean, mamboa jarri zuten. Han hasi ginen neba eta biok dantzatzeko. Korrua ere egin ziguten! Eta dantzalekuko nagusiak kontratatatu egin nahi izan gintuen. “Baina gu ez gara artista! Kubatarrak gara, ez da besterik!”. “A, horregatik ari zarete hain arin dantzatzeko”.

Ia bi urte egin zenituen Euskal Herrian.

Oporretan bezala. Ez eskolarik, ez lanik. Idazkaritzan graduatu berria nintzen, hemen, Habanan, eta praktika ez galtzearen, Bilbon akademia batean izena eman eta mekanografia eta takigrafia landu nituen, ez herdoiltzeagatik. Gainerakoan, oporraldia izan zen.

Lemoiz, Armintza... euskararen lur dira.

Esan beharrik ez duzu. Amamak euskaraz berba egiten zidan, baina nik ez nion alerik ulertzen. “Itzuli!”, esaten nion. Akordatzeko naiz “Iaztana, politxe, etorri hona...” esaten zizkidala. *Aita, ama...* esaten ikasi nuen. Gauza asko, urteen igaroan ahaztu zaizkidanak. Baina gogoan iltzatuta dauzkat horiek denak.

Zer dela eta egonaldi hura?

Gure aitak hogeita bost urte zeramatzen Kuban, atzera herrira itzultzeko aukerarik gabe. Berak, ordea, horixe nahi izan zuen beti: itzuli, gurasoak ikusi, arrebak, ilobak... Itsas Objektuen Ferreterian ari zen lanean, Portu etorbidean, aduana aurrean. *La Marina* zuen izena dendak. Bada, bazkide guztiak espainiarrak ziren...

Espainiarrak ala euskaldunak?

Espainiarrak, espainiarrak. Burgos partekoak, gehienak: Bercedo, Espinosa de los Monteros... Gure aitak “aurten banoak!” esaten zuen aldiro, beti bazen besteren bat asmo horixe zuena. Eta ezin joan. Orduko hartan bai, horratik! Bestalde, sasoi hartan etxean, Habanan genuen izeko bat, aitaren arreba bat, eta hura Espainiara itzultzeko zela eta berarekin bidali ninduen aitak jakinaren gainean hurrengo urtean bera —gure aita, alegia—, joango zela gure ama eta anaia hartuta. Eta halaxe izan zen. Ni joan eta urtebetera Euskal Herrian bildu ginen denok. Ordurako nik urtea egin nuen Espainian.

Gurasoak Kubara emigratutakoak ziren.

Gure aitak kontatzen zuen Marokoko gerra garaian berak hamabost urte zituela, eta gaz-

Neba futbolzalea

“Akordatzeko naiz, behin, aita ferreterian lanean eta batzuetan banketxera bidaltzen zuten Juan, dirua eramatera. Behin, 14.000 dolarrekin bidali zuten.

Ferreteria hartan dirua ibiltzen zen: belaki esportatzaile nagusia zen, Kubatik AEBetara. Dibisa kobratzen zuen.

Bada, eman dio dirua aitak Juani, banketxera eraman dezan eta, denbora igaro eta Juan ez zela azaltzen. Joan dira bila eta Juan, Habana Zaharreko Plaza Zaharrean, futbolekin, 14.000 dolarrekin poltsikoan!

Hura hebaia eman zion aitak! Futbol zalea nire neba! Hileta elizkizuna, igual, eta hileta utzi eta futbolera joaten zen. Alaba ezkondu zen egunean ere, ezteietan, tarte bat egin eta hanka, futbol bilkura bat zuela eta. Juanek dena uzten zuen futbolarengatik”.



teak hartu eta soldadutzara eroaten zituztela. Handik, Marokoko gerrara. Asko ez zirela itzultzen. Bera seme bakarra zen etxean, eta hartu eta gerrara eroango zuten beldurrez, alde egin zuen. Esaten zuen hainbat jendeke alde egin zuela gerra hartara ez joateagatik. Gure aitak lehengusua zuen hemen, Manzanillon —Granma eskualdea gaur egun—, eta beste bat Txilen. Nire aitaita-amamek aukera eman omen zioten: “Nora gura dok? Txilera ala Kubara?”. Eta berak Kuba aukeratu. Etxean bera izan zen emigratu zuen bakarra.

Zure amaren berriak?

Kanariar Uharteetan jaio zen. Kanaria Handiko Las Palmasen. Zortzi urte zituela heldu zen hona, baina ez dakit zer dela eta emigratu zuten haren gurasoek Kubara. Hona etorri eta urte bira edo, hil egin zitzaion ama, erditzean. Eta handik urtebetera, aita. Lau anaia ziren, bi Kanarietatik etorriak —tarteetan zen gure ama—, eta beste bi hemen jaioak. Bakar-bakarrik geratu ziren, goian zerua eta behean lurra. Amak kontatzen zuen hemengo agintariekin lau senideak deportatzeko asmoa hartu zutela, hemen inor ez zeukatela eta, baina lau ume haiek ataka estu hartan ikusi eta Manzanilloko hiru familiak laurak jaso zituztela. Gure ama, adibidez, andre alargun batek jaso zuen, seme-alabarik ez zeukana.

Garai latzak!

Nonbait, nekazari herrietan, Manzanillon kasu, horrelako egoera baten aurrean badakite nola jokatu. Gure ama andre hark jaso zuen. Mutikorik txikiena, gure amama erditzean jaio-takoa, beste andre batek. Beste anai-arreba biak Vallejo sendiak jaso zituen. Ez dakit baduzun Vallejo komandantearen berri...

Ez...

Bada, Fidelek [Castro] izan zuen lehenengo medikua izan zen. Familia hark jaso zituen nire osaba-izeko izango ziren biak. Manzanillon bertan hazi zituzten. Ni neu ere hantxe jaio nintzen, Manzanillon, 1935ean, nahiz eta gure familia nik hamar urte zituela etorri zen Habanara, 1945ean.



Zerk ekarri zuen zure familia Habanara?

Hemen bazen ferreteria bat, La Marina izenekoa. Nagusiak, euskaldunak: Garai eta Zatika. Bada, biek, Manzanillora joan ziren batean, gure aita ikusi zuten, lanean. Oso langilea ei zen, diziplinatua, ordenatua oso... Deigarri gertatu zitzaien, nonbait, eta dendako nagusiari mutilaren izena galdetu. Honek, "gauzak nola diren, halabeharra behar du: euskalduna da". Besteek, orduan eta interes handiagoa gure aita Habanara eramateko. Joan nahi ote zuen galdetu zioten, eta etorri zen. Lehenengoan, bazterrak ikustera. Hilabete inguru egin genuen hemen.

Horrela heldu zineten lotinatarrak Habanara...

Ez hain erraz erel! Gure aita ez zen arriskuak hartu zale. Bai, arriskua hartu zuen Kubara etorri zenean, baina, bertan zegoela, ez zuen bere burua estualdian erraz jarriko. Habanan hilabete igaro, Manzanillora itzuli eta gure amak: "Eta? Zer egin behar dugu, joan ala bertan geratu?". Aitak: "Ez dakit ba, pentsatu egin behar dut oraindik". "Pentsatu? Ez duzu askorik pentsatu beharrik, dagoeneko etxeko altzari denak saldu ditut eta! Habanara joan beste erremediorik ez dugu". Horrela etorri ginen. Amak bai, hark bazuen gatzal!

Amak ez ezik, zure neba zenak ere bai. Futbolari bikaina izan zen, Kubako selekzioan jokaturakoa, zuen deiturari distira handia emandakoa.

Bera eta biok ginen etxeko umeak. Ni bera baino hamaika hilabete zaharrago nintzen. Euskal Herrian izan ginen garaian berak hamazazpi urte zituen. Bada, ordurako futbolari sena zuen: Bilboko Athleticekin entrenatu zuen, San Mamesen. Gainza, Zarra, Iriondo eta horien garaia zen. Neba, berriz, eskuin hegaleko aurrelaria zen. Futbola, horixe zuen pasioa. Euskal Herrian izan ginen bitartean, ama eta biok Kanariar Uharteetara joan ginen lau hilabeterako, familia ikustera. Bada, gure aita-nebek ez zuten nahi izan, Espainiako Kopa jokatzeko ari zirelako sasoi hartan eta deskuiduan finalera iritsi eta Athletic Madrilerako edo Bartzelonara joan behar bazen, beraiek ere joateko. Haiek futbolaren pentsutan zeuden!

Athletic

"Gure nebak futbolari buruzko irratsaio guztiak entzuten zituen. Buruz zekizkien Espainiako ligako estatistika guztiak. Athleticetik galtzen zuenean, akabo! Zorionez, Athleticen urte onak egokitu zitzaizkion. Euskal Herrian egin nuen denboran San Mamesa joaten nintzen ni ere. Poza lizentziatuaren kalean bizi nintzen, eta han, amaieran, San Mames zegoen. Osabarekin eta haren anaiarekin joaten nintzen. Akordatzeko naiz, behin, egundoko erauntsia ari zuen, eguraldi txakurra!, eta denak han, San Mamesen, tente, guardasolpean... Han inork ez zuen alde egiteko asmorik. Hantxe denak! Nire neba oso harro zegoen Athleticetik ez zuelako atzerritarrik hartzen".

Eta ez ziren Kanariar Uharteetara etorri. Akordatzeko naiz Di Stefanoren debuteko partida ikustera ere joan zirela aitaitarekin.

Zuek nola ikusten zenuten haien afizioa?

Aita futbolaria izana zen gaztetatik, eta etxean horixe ikusiz hazi ginen. Nebari ere umetatik gustatu zitzaion. Habana Zaharrean bada plaza bat, Plaza Zaharra izenekoa, zoru zementuzkoa duena; bada, hantxe jokatzeko zuen. Futbol zaletasun handia zegoen hemen garai hartan. Nire nebak Habana Zaharreko Club Españan jokatzeko zuen. Eta Juventud Asturiana taldean ere jokatu zuen. Lehiaketak egiten zituzten eta gu, neskok, taldearen ama-ordeak ginen, lagunartea osatzen genuen, bihotz emateko...

Etxean ez zineten haserre izango: jokalaria handia izan zen Juan Antonio Lotina.

Bai, jakina, oso harro geunden. Juanitok —hala esaten genion etxean—, hemengo selekzio nazionalan jokatu zuen. Gainera, bazen jokaldi bat, behin baino gehiagotan egin zuena eta aipu eta sona handia eman zizkiona: "gol olimpikoa" esaten ziotela uste dut. Kornerretik zuzenean gola sartzea. Berak beste inork ez ei zuen jokaldi hori egin hemen, Kuban. Horretan nabarmendu zen. Juanitok futbolaren inguruan egin zuen bizi guztia.

Baita jokatzeari utzitakoan ere.

Bai. Manuel Fajardo Heziketa Fisikoko institutuaren futbol arloko katedra arduraduna izan zen, eta irakasle. Habana Hiriko futbol ordezkaria izan zen gu bizi garen barrutian, Urriak 10 izenekoan. Bada hemen eskola bat, Alfredo Aguayo, haurren arteko futbol txapelketak antolatzen zituen. Berak zioenez, txikitatik hasi beharra dago, oinarritik. Futbol taldeak osatu eta txapelketak antolatzen zituen, eta Munduko Txapelketa zenean, berak *mundialitoa* antolatzen zuen bertoko gazteen artean: Bartzelona taldea, Bilbo, Argentina... Taldeak osatu eta *mundialitoa* jokatu. Jakina, Kubako selekzioa inoiz ere ez da munduko azken fase-ira iristen...

AZKEN HITZA

'Gallegoa' ez, euskalduna!

"Lehen, txikitan, hemen espainol guztiak *gallego* ziren. Gure aita haserrarazi nahi bazenuen, nahikoa zenuen hari *gallego* esatea. 'Ez, ez, ni euskalduna naiz!', esaten zuen. Barruan zeraman. Bada, nire neba Juani umetan *gallego* esaten zioten. Aita sutu egiten zen, eta Juan ere jabetuta zegoen horretaz. Egun batean, esan zien lagunei: '*Gallego* esaten didanari ez diot erantzun ere egingo!'. Eta horrela izan zen. Bai, bai, aitak Euskal Herriarekiko gogo zera hori sartu zigun barrenean. Ez zitzaion gustatzen *gallego* esan ziezaiten, edo *asturiano*. Ezta espainola ere. Esaten zuen: 'Ni euskalduna naiz!'".



Lotina, Jose Enrike Urrutia Capeau idazle eta margolaria alboan duela.

Futbol zaletasun handirik ere ez diot jendeari igarri...

Hemen pilota [beisbola] da nagusi. Horixe zen gure nebaren borroka. Futbolari ez ziotela berak nahi beste opa esaten zuen, nazioarteko txapelketak behar zirela, baina hori, hemen... Pilota bai, pilota ondo dabil. Bada-kizu zergatik? Problema politikoa delako. Hemen AEBen kontra jokatu nahi da pilotan. Jokatu eta irabazil! Horixe gustatzen zaio jendeari, kirol nazionala da, txikitatik hasten dira umeak pilota eta eskularrua hartuta. Nola futbolearen ez dioten irabazten! Irabazten dioten egunean, gora egingo du futbolak.

Zuri dagokizunez, zer gertatu zen ezkondu eta familia osatu zenuenean? Zertan izan zen zure euskal gogoa?

Ez zen ezer aldatu, ze ezkondu nintzenean ere gurasoekin batera bizitzen segitu nuen. Ez nintzen independizatu, nahi baduzu. Giroa ez zitzaidan aldatu. Bi seme izan nituen eta euskaldunak dira haiek ere, euskal kubatarrak. Are gehiago dira kubatar, euskaldun baino, hemen jaio ziren eta, baina badute gogo hori, ni ere horri eutsi diezaioten saiatu naiz eta.

Bistan da: Asociacion Vasco-Navarra de Beneficiencia-n (Ongintzazko Euskal-Nafar Elkartearen) kargudun zaitugu.

Bigarren lehendakariordea naiz. Hemen bertan ziren euskaldunei laguntzeko asmotan sortu zen, orain dela ehun urte baino gehiago. Behintzat, 1895ean abian zen elkarteak. Aldiz, Eusko Jauralaritzaren euskal etxeen erregistroan elkarterik gazteena da. Gure elkarteak presidente andrea Bilbon egin den diasporaren mundu kongresuan egon zen uztaillean. Maria Teresa Cornide. Euskaldunen heren iloba dela dio berak.

Euskal Etxea

"Garai batean, 40-50eko hamarkadetan, euskal etxea Prado pasealekuaren eta Malekoiaeren artean zegoen. Jatetxea eta pilotalekua zituen eta euskaldunen biltokia zen. Gu igandero joaten ginen hara, bazkaltzera. Joan baino lehen, telefonoz jotzen zuen gure aitak, bagindoazela. Paella eta zemahi prestatzen zuten, baina ezer baino lehen, nire nebak piper frijituak jan nahi izaten zituen. Zalea zen. Ez uste, gero! Euskal Herriatik ekartzen zituzten piperrak. Gero, bota egin zuten euskal etxe hura. Oraingoa berria da, Vedadon dago... Iraultzak euskal etxeak eta denak nazionalizatu zituen, baina euskaldunak bere sentimenduari eutsi zion, ez da dudarik".

Bada, zeuk asmatu! Balitekeela izatea, edo ez izatea!

Zertan da elkarteak gaur egun?

Zuzendaritza eskasa izan du azkeneko urteetan eta hondoa jo du. Egoitza ere bazuen, baina galdu egin zuen. Duela urte batzuk berregituratzeari ekin zion eta horretan parte hartu genuen nire neba zenak eta biok. Burua jaso nahian ari gara. Panteoia ere badugu, Kolon hilerrian. Neu naiz arduraduna. Baina berriztatu beharra dago. Elkarteak bazkideak daude han lurperatuta.

Aurrerabiderik izango duzue?

Horretan gara. Iaz, adibidez, Legarreta jauna etorri zen, Eusko Jauralaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzako kidea, eta Habana Zaharrean egoitza bat nola inguratu ari gara. Izan ere, egoitza izanez gero, bazkideentzako ekintzak antolatu ezinik ez dugu izango: bideo emanaldiak eta beste. Eusko Jauralaritzak ordenagailua ere eman zigun, baina egoitza behar dugu, elkarteak behar bezala abiarazteko. Bitartean, asturiar etxean biltzen gara. Gela bat uzten digute bertan bilerak egiteko.

Euskaldun asko zarete Habanan?

Gaur egun ez gara hainbeste. Tira, ez dakit ziur, orain enpresaburuak ere badaudenez... Baina garai batekoak, hemen sortuak, ez gara asko, ez. Hala ere, batek baino gehiagok hots egin izan dit telefonoz, elkartearen izena eman nahiko lukeela esanez. Interesa badago, ez dugu arbasoen lurarekiko lotura galdu nahi... Euskaldun izan nahi dugu Kuban. Sentimendu bat da, galtzen ez dena. Nire kasuan, berrogeita hamar urte baino gehiago dira Euskal Herrian izan nintzenetik, eta ez nuke atzera itzuli gabe hil nahi. Begiak itxi eta Lemoizko kalea ikusten dut, aitaita-amamen etxea, eliza, hilerria... Baina oraingo egoera ez da ordukoa. Hala ere, ez dugu itxaropena galduko. ■